www.ivap.org web-orrialdetik jaitsita

# A P - 1.HE / 3. eredua

1.- *Galdetzen badizute, esan diru-laguntza ezin duela ……………. eskatu, herrikoa izan behar duela.*

a) norbaitek

b) inor

c) edonork

d) norbait

2.- *Lana bukatzeko arazoak …………… aipatu ................., baina zeintzuk?*

a) zutela / zizkien

b) zenizkidala / nizkizun

c) zenituela / zenidan

d) zenuela / zitzaidan

3.- *Zer ordutan irtengo zara?*

a) Laurak bost gutxiagotan.

b) Laurak eta bostetan.

c) Laurak eta bost gutxiagoan.

d) Lau eta bost gutxi.

4.- *Makilekin dabil. Istripua izan du eta ……………. apurtu du.*

a) orkatila

b) eztarria

c) sorbalda

d) sabela

5.- *Zure ordenagailua ……………. ibili da beti.*

a) onegia

b) hobeto

c) hobea

d) hoberena

6.- Zein da <u>ZUZENA</u>?

a) Ez iezaiozu arduratu orri zuriak ekartzeaz!

b) Irakurri ondoren, aukera ezazu erantzun egokiak!

c) Ikasten hasi baino lehen, azpimarra itzazu ideia nagusiak!

d) Ahalegindu ezazu galdera guztiak erantzuten!

7.- *Aspertu egingo zara istorio bera behin eta berriz …………….*

a) entzuteko.
b) entzutera.
c) entzutea.
d) entzuten.

8.- *Non utzi ……………. konpontzeko eman ……………. guraizeak?*

a) zenizkigun / genizkizun
b) genizun / ziguten
c) zenigun / zituen
d) nizkion / zidan

9.- *Turismo-bulegoan herri ……………. hurbil dauden toki interesgarrien berri emango digute.*

a) honetatik
b) hemengo
c) honetako
d) hemendik

10.- *Ez dakienean zer esan ……………. hitz egiten du.*

a) seme-alabei
b) seme-alabak
c) seme-alaben
d) seme-alabez

11.- *Larrialdietara ……………., ezin zara sabeleko min horrekin …………….*

a) joango beharko dugu/ egon.
b) joango behar dugu / egongo.
c) joan beharko dugu / egon.
d) joan behar izan dugu / egoten.

12.- Zein da ZUZENA?

a) Zortzietarako zabalik dagoela erantzun digu.
b) Okerreko kaletik sartu nintzen konturatu nintzen.
c) Lana amaitu gabe du ikusi dugu.
d) Proba gogorra izango den azaldu digute.

13.- *Noiz da informatikako ikastaroa?*

a) Otsailaren 8etatik 20era.
b) Otsailaren 4tik 26ra.
c) Otsailaren 9tik 15etara.
d) Otsailaren 10tatik 28etara.

14.- *Herri eta kultura txikiak handiak ……………. aberatsak eta baliagarriak dira.*

a) bezain
b) hainbeste
c) beste
d) bezalakoa

15.- *Odol asko galdu du eta nahiko ……………. dago.*

a) sendo
b) sakon
c) ahul
d) jator

16.- *Nork esan du eztiak azukreak baino askoz ere ……………. gizentzen duela eta margarinak gurinak baino koipe ………….. duela?*

a) gehiago / gutxiago
b) gehiegi / gutxiegi
c) gehien / gutxien
d) gehiena / gutxiena

17.- *Ez zekien nora ……………. bide estu eta ilun hartatik.*

a) zenbiltzan
b) zihoan
c) zatozen
d) zabiltzaten

18.- *Ezetz asmatu nor etorri ……………. bisitan?*

a) zaigun
b) zaigula
c) zaiguna
d) zaigunik

19.- *Azken bidaia ……………. izan zen, hegazkinak aberia izan zuen eta hiru ordu eman genituen aireportuan.*

a) kutsagarria
b) mingarria
c) barkagarria
d) negargarria

20.- *Lanean hartu ziren ……………. alde egon ginen denak.*

a) neurriei
b) neurrien
c) neurriez
d) neurrientzat

21.- *Honela izan zen: fotokopiagailuari papera amaitu ……………., orri batzuk sartu ……………., eta gero, hondatu egin zen.*

a) zitzaizun / zenuen
b) zitzaion /nizkion
c) zizkigun / genituen
d) zitzaizkion / zenion

22.- *Goizago ……………. lehenago oheratu behar duzu.*

a) jaikitzea
b) jaikitzeko
c) jaikitzera
d) jaikitzen

23.- *Gurasoen eta eskolaren arteko ................... indartzeko ahaleginak egiten ari dira.*

a) harremanak
b) helburuak
c) ikusleak
d) oztopoak

24.- Zein da <u>ZUZENA</u>?

a) Dutxa hartzen dudanean, ile asko jausiko zait, eta ez dakit zer egin.
b) Orain dela gutxi mezu bat bidali dit Ainarak.
c) Lanera sartzen naizenean, ordenagailua piztu dut.
d) Ez dakit zenbat kilometro ibiltzen naizen gaur goizean, baina nekatuta nago.

25.- *Eman zizkigun aholkuak ez ziren hain desegokiak, lagundu besterik ez ziguten egin.* Zein da esaldi horren PAREKOA?

a) Eman zizkigun aholkuak ez ziren desegokiak izan, baina ez ziguten ezertan lagundu.
b) Emandako aholkuak ez ziren hain desegokiak, lagungarriak baizik.
c) Eman zizkigun aholkuak lagungarriak izan arren, ez ziren hain egokiak.
d) Aholkuak ematea eta laguntzea lagungarriak izan ziren guretzat.

26.- *Elurra egiten jarraitzen du, gogotik …………….*

a) hala ere.
b) beraz.
c) ere.
d) gainera.

27.- *Ezin ……………. dakizun guztia esan, bestela arazoak izan …………….*

a) ditzakezu /daitezke.
b) ditzake / dezake.
c) daitezke / dezakezu.
d) dezakezu /ditzakezu.

28.- *Lastima da! Behin ……………. joanda, inguruko herriak ikustea ere merezi zuen.*

a) hartaraino
b) hartara
c) hartan
d) haraino

29.- *……………., aurpegi txarra ipintzen zidan.*

a) Ezin duela erre esan nionean
b) Ez erretzeko esaten dudan bakoitzean
c) Ez erretzeko esaten nion bakoitzean
d) Ezin duela erre esaten ari naizenean

30.- *Makal samar egon da, baina azken egunetan zertxobait ……………. dela esan daiteke.*

a) bizkortu
b) larritu
c) gainditu
d) irabazi

31.- *Zuk ez ……………. norekin ……………. gurasoak etxera?*

a) zenekien / zindoazen
b) zeundeten / zihoan
c) zeneukan / zentozen
d) zenekien / zetozen

32.- *Zenbait auto-……………. gidatzeko baimena kendu diote mozkortuta joan delako.*

a) gidariari
b) gidari
c) gidariri
d) gidariak

33.- *Haserre dagoela ematen duen arren, eskua altxatu digu agurtzeko.*
Zein da azpimarratutakoaren PAREKOA?

a) Haserre dagoenez.
b) Haserre dagoela ematen badu.
c) Haserre dagoela ematen du eta.
d) Nahiz eta haserre dagoela ematen duen.

34.- *Iaz baino lagun ……………. eman du izena uztaileko ikastarorako.*

a) zenbaitek
b) askok
c) hainbestek
d) gehiagok

35.- *Liburutegira sartu garenean, nor izan da zorionak eman …………….?*

a) dizkizuna
b) dutena
c) dituztenak
d) duenak

36.- Jarraitu elkarrizketa:
— *Utziko didazu zure argazki-makina erabiltzen?*
— *…………….*

a) Ideiarik ez dakit!
b) Ez horixe!
c) Pozten naiz!
d) Ez horregatik!

**www.ivap.org web-orrialdetik jaitsita**

37.- Zein da ZUZENA?

a) Zein zuhaitza landatzea nahi duzu lehenengo?
b) Bakarrik 200 korrikalariek parte hartu zuten lasterketan.
c) Parrandan joaten denean, hainbat lagunak ezagutzen ditu.
d) Gaur egun, edozein herrik du igerileku publikoa.

38.- *Proba egiten duzuen bitartean, karneta mahai gainean edukiko duzue.*
Zein da azpimarratutakoaren PAREKOA?

a) Proba amaituta.
b) Proba amaitu arte.
c) Proba amaitzen duzuenean.
d) Proba amaitzean.

39.- *Emozio biziak gustuko ……………. film hau ikusten ondo pasatuko du.*

a) duena
b) dituztenek
c) dituenak
d) dietenak

40.- *Gure nagusia oso jatorra da, lehengo egunean bazkaltzera gonbidatu …………….*

a) ziguten.
b) zintuzteten.
c) gintuen.
d) zitzaigun

41.- *Herenegun, Zuriñe liburu-dendaren ondoko botikara sartu zen tentsioa hartzera zorabiatu egiten baitzen.* Zein da esaldi horren PAREKOA?

a) Zuriñe, herenegun, liburu-dendan zorabiatu egin zelako, botikara sartu zen.
b) Herenegun, zorabiatu egiten zen eta, liburu-dendaren ondoko botikara sartu zen Zuriñe tentsioa hartzera.
c) Herenegun, Zuriñe liburu-dendaren ondoko botikara sartzen bazen, zorabiatu egiten zen.
d) Zuriñek, herenegun liburu-dendaren ondoko botikan zorabiatu zenez, tentsioa hartu zuen bertan.

42.- *Gutunak ……………. lagunduko dit.*

a) idaztera
b) idaztea
c) idazten
d) idazteaz

www.ivap.org web-orrialdetik jaitsita

43.- *……………. hobera egin du, zerua hodei gutxirekin mantenduko da.*

a) Etorkinak
b) Egutegiak
c) Egonaldiak
d) Eguraldiak

44.- *Jan lasai, perretxiko hauek ez dira ……………. pozoitsuak.*

a) ugari
b) pixka bat
c) batere
d) erabat

45.- *Etxerako ordua heldu ……………., eskerrak eman ……………. afariagatik.*

a) zitzaigunean / genizkion
b) zigunean / genituen
c) zenean / zitzaigun
d) zizkigutenean / genien

---

**ORDEZKO GALDERAK**

46.- Zein da ZUZENA?

a) Piztu itzazu argia lehenbailehen!
b) Moztu itzazu orriaren ertzak!
c) Hurbil ezazu gehiago, ez zaitut ondo ikusten eta!
d) Bete ezazue hutsune hauek!

**www.ivap.org web-orrialdetik jaitsita**

47.- *Ez kezkatu, geu ahaleginduko gara bonbillak …………….*

a) aldatzen.
b) aldatzeko.
c) aldatzera.
d) aldatzea.

48.- *Zenbat ……………. hartu dituzte eserleku berriak?*

a) langileentzat
b) langileri
c) langileei
d) langilerentzat

# A P - 1.HE / 3.eredua

## ERANTZUN ZUZENEN ORRIA

| | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | C | 2 | C | 3 | A | 4 | A | 5 | B |
| 6 | C | 7 | D | 8 | A | 9 | A | 10 | D |
| 11 | C | 12 | A | 13 | B | 14 | A | 15 | C |
| 16 | A | 17 | B | 18 | A | 19 | D | 20 | B |
| 21 | B | 22 | B | 23 | A | 24 | B | 25 | B |
| 26 | D | 27 | D | 28 | D | 29 | C | 30 | A |
| 31 | D | 32 | C | 33 | D | 34 | D | 35 | A |
| 36 | B | 37 | D | 38 | B | 39 | C | 40 | C |
| 41 | B | 42 | C | 43 | D | 44 | C | 45 | A |

ORDEZKO GALDERAK

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| 46 | B | 47 | A | 48 | D |